

Borroka ere bai

INAKI SEGUROLA



HAMAIIKA aldiz entzuna: badoa goizaldera Errezilgo baserri bateko mutila festatik etxera, eta jakineko galdera aita zaharrak: «nahiko borroka egin al dezue bidanitarrekin?»; semeak lotsaturik: «ez ba, ez dugu batere egin»; aitak haserre gorrian: «kaka-zarra esaten ziet nik holako festei!».

Borrokari ahatzu egin zaigu eta bakean erreditzen ikasi. Gure ezinak eta muzinak barrengo laiozera sakatzen ditugu orain eta noizbait azaleratzen gaizt psikosomatikoaren txurran.

Heldu-ta-erati: ez zen Errezilgo batean beste politikarik, nik aditza dudanaz. Orain ere bada «borroka» izenkorik herrietako festetan, badakit, baina ordukoak zainak barnago zituen, eta esango dizuet zergatik.

Bularreko haurrek ere dakitena da nola etorri ziren aspaldi hartan erromatarrek Erniopeko lurralde irabazteko amorrer biziaren mundu zabalean sekulako eder-fama zuten Errezilgo nesken jabe egiteko irrikaz. Ez zuten haiekin larrik goxatzen lanik izan. Zelatuen behera izan ziren sarraskitua. Erruzko jende-saldoa izan behar zuten harrikaitz-arteetan hilotz gelditua, eta ordutik dator gure etimologia poetikoa eta tradizio politikoa uztartzen dituen esarea: «Errezil, nekez bizi eta errez hil». Bidenabar: ez dugu guk sekula Lartaun buruxkilaren entzuerarik izan; noizbaiteko abertzale oreretoreen batzuek asmatua izan behar du, inondik ere.

Zein den kontu hauen gutuzien «madria»? Oso erraza: orainutsu arte irauan duen etengabeko heldu-ta-erati behar hori ez zen gure aurreko Erromak militar txuloputa haiek porrotatu zituztenekoaren biziberrietzea baizik. Eta datorrela orain intelektuak mito-desegile zakil-erori gixaixo horietakoren bat hemengo esanak Historiaren luze-laburaren neurtzera: bihurtuko dizkiogu hezurrik mami, berari eta Historia guztiari.

Zanpaketak

TXILLARDEGI



EGUNKARIA: 1994-VIII-11; 29. orrialdea 'efemerideak' '1875: madrilek ehun mila soldadu bildu zituen karlistei aurre egiteko'.

Ohartxo bat, erreparagaitz: 1875 urriti baitago, eta karlistaren kontuak, urrutitago.

Hego Euskal Herrian 'ordenua' berrezaritzeko, euskal-herritar bakoitzeko 0,154 soldadu (6,5 euskal herritar soldadu bakoitzeko), Gaurko zifratara ekarrita, 420.000 soldadu Hego Euskal Herrian 'bakea' eta 'ordenua' bermatzeko... Askoitxo, ez da hala?

Beste dato bat: 1876an, kondatzen zaigunez, 'ezkertar espainolek' gaina hartu zieten, lau borroka-urte latzen ondoren, 'eskuindar espainolei'.

Hots, 1875ean, indar armatu karlistetan % 80 ziren euskal-herritarrik: Hegoaldeko lau probintzietan bildutako bolondres ez osatuak.

Zenbat ziren karlista gerrillari baik? 33.000 (horien artean 26.400 euskal-herritar). Gaurko zifrak: 109.000 euskal 'terrorista' (orduun 'faccioso' esan ohi zen). Madrilek antolatutako 'ejercito regular' osoaren kontra (420.000 soldadu, esan dugunez). Lau ta bat.

Euskal-herritarrok gerratea galdutako eta geroztik, 1877az geroztik preseski, 'bascogandok' soldadutza egin behar, foru-instituzioak deseginik, aduana Alhufemendian, eta abar.

Bestela esanda: 'demokratikoki' espainol bihurtuak...

Baina, tira, tira, kontu zaharrak dira horiek. Eta, gainera, 1876an, beharrik, 'progreek' nagusitu ginen.

Bai, bai!

HEMEROTEKA

osoa zehar, beldurrak, lotsak edota arazo personalek, hainbat borbaketa, etxean ezkutan jasaten diren honiek ere, isilaraztera eramaten dute.

EDITORIALA

The Guardian

Gidabaimena argazkiarekin

Lehendabizi, kreditu-xtartelen gisako gidabaimenak zabaldu, eta horiek argazkiekin osatu. Horrek 32 milioi gidari identitate agiri hobetu bat emango die. Ondoren, gidari ez direnak beraz-izati propio sortutako beste agiri batzuk erabili. Geroago, heldu guztiari soinean beren agiriak eramateko eskatu. Eta (bai, zizutun) identitate agiri nazionala zabaldu duzu, zeinek, txarletan dagoen azken teknologia dotorearen jabe, mota guzietako beste edozein informazio ere biltzea ahalbidetuko baitu: hatz markak, ahar markak, DNA, gidatzen egindako arau-haustek, are begietako erretina moledeak ere. Zere erretak ez du mugarik. Begiak itxi-ireki batean, patruilazten ari den polizi agente batek gidari bat geldiarazuko balu, agerian utzi ahal izango luke mota guzietako informazio pribatua. Hori esku-bide zibilen aldekoen amesgaiztoa da; hala ere, kontrolatu egin beharko litzekete beren emis txarrak. Ipar Irlandako baimenek beti argazkiak izan dituzte 20ko hamarkadaz geroztik, baina horren ondorioa ez da izan identitate agiriak erabiltzen hastea. Are gehiago, Bame Arazoetarako mi-



Noiz izaten da korrupzio delituen preskripzioa? -Batuatan egiten diren egunaren bezperan.

CHUMY CHUMEZ / DIARIO 16

nistiroak —Earl Ferrers— duela urtebete bakarrik Lord-en garbarari adierazi zion ezin zezakeela ekintza terroristar bat bera ere irudikatu identitate agiriak prebeni zezaketena.

Gutxi egingo diote aurka atzo Garraio Saiak kreditu-xtartelen gisako gidabaimen argazkiarekin ezartzeko egindako proposamena. Erresuma Batua da gidariak beren baimenetan argazkiak ez duten Europako herri bakarra. Gidabaimen berria beranduko da. Egungo paper orri konputertzatua forma desegokieta da zorro modernoarentzat. Baimendutako agintariak gidariak egindako azterketek argi uzten dute plastikoko baimen agiri batek inondik ere oso harrera ona izango lukeela. Eta astero azterketa egiten duten pertsonetatik 1.000k eskarmentu handiagoa duen beste bati tokia uzten diotela sujeritzen atzo Royal Automobile Club-ek (RAC) egindako adierazpena absurdua da. Horrek esan nahi al

du aurreko hamarkadan 500.000 iruzur egin zirela? Zentzugabea. Urteko bederati kondena besterik ez dago delitu egiteagatik.

Baina baimen berriak bidea ireki al diezaieke identitate agiriari? Jakina da John Major sistema hori indarrean jarri nahi duela. Whitehalloko departamentuak banatuta egon ohi dira gaiari buruz. Gauza bera gertatu da Polizian. Poliziburuek diotenez, jendea eskatu beharko litzateke agiri soinean eramateko krimena prebenitu nahi bada, baina horrek beste zenbait arriksuri bidea irekiko lieke; gainera, beste kriminal mota bat sortuko luke (soinean ez daramatenak), jendearen eta polizien arteko arazoak ugaldun egongo lirateke eta. Sus lege zaharrikeren gertatzen den bezala, komunitate etnikoek berriro ere diskriminazio bat jasaten ari direla pentsatzea ekarriko luke.

EDITORIALA

LUZENDARIARI

Berrindartze ekonomikoa?

Egun hauetan, sarritan entzun-irakurri dut albistegiak, 'errekuperazio ekonomiko' baten aurrean omen gaudela. Eta nik, gai hauetan aditua ez naizen honek, neure bururikiko: «zer arrazo gertatzen da hemen?». Berrindartze ekonomikoa, non?, norentzat?

Abuztuaren 4an, Labe Garaietako (A.H.V.) 'Coque'-a prestatzen zuten labeak itxi egin zituzten. Hemendik aurrera, eta Labe Garaiak itxi arte, Asturiastik ekarriko omen dute Labeek behar duten 'Coque'-a.

Badirudi ere, nahiko ziurtzat, 'mini aceria' eraikiko duela. Egia balitz, 400 langile inguru nahikoak omen litzuke 'mini aceria' honek. Puntu-puntu teknologia omen da. Hamabigarrena munduan. Arras konpetitiboa. Irabazi handiagoko kapitalarentzat. Baina Labe Garaiek, milaka gehiagori ematen diote jaten. Berrikuntza teknologikoari, bai. Baina, gutzitan bizi kalitate (ez dut esaten kontsumo maila) hobegaitzeko behar diren neurmiei ere bai. Astean 40 ordu baino gutxiago egin beharko direla? Noski! Baina teknologia berri horiekin ez dugu gehiago produzitzen? Naval (Ezkerraidean kokaturik dagoen

beste lantegi handi bat) ere kokolan omen dago. Hori diote sindikatuek. Ez dela egia. Agintariak politika ekonomiko kritikatzeko dutela helburutzat esango dute Naval-a itxi nahian dabiltzanek. Euskaldun eta Labe Garaietan horrela gertatu zen. Zergatik sinestu agintariak?

Beraz, Ezkerraidean lan (ez nahi duten guztiak) eta bizi garen % 80aren ekonomietan ez dago berrindartzerik. Agian Ruanadan, Somalia... ote da?.

JOXE GOIKOETXEA
Barakaldo (Bizkaia)

GAIA JARRITA



Woodstock

Egin nahi dute historiako kontzerturik handina erreferentzi aukeraturik garai batean egina, negozio hau Woodstock izenez bantaiaitu dute baina lango askatasun grina urrutira alde egina esponsor asko, biziorik ez, poliziaz jende haina, ibaia izen berbera dauka baina ura desberdina.

JON MAIA



Batzorde-Parekidea: 72564 E / Lege Goiduria: SS 800/90



OJD IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URUA

Gereitea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariordea: LUZIAN ETXEHARRERA

Publizitate: MARI JOSE SARASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialean 01-02 Pablikoak / 20160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa 36 54 93

Egoitze soziale, Publizitate eta Administrazio: Ansoe Jakinena / 16 1 / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa 45 59 57

Arabara: San Antonio 20 1. eker / 01005 Gasteiz / ☎ 25 38 72 / Faxa 25 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45 15 esk. / (Arriortu dorrea) / 31011. Iruñea / ☎ 17 80 78 79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza 2 1. eker / 48003 Bilbo / ☎ 410 40 40 / Faxa: 410 37 15

Lapurdia / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pannecau 14 1 / 503 Pasa / Iruñea / ☎ 104 000 Bonaire / ☎ 89 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11